

Beneditarrak Euskal Herrian

Lehenengo euskal beneditarrak aipatzean batez ere lau mendetako historiaz ari naiz hemen: hau da, IX-XII. mendeak berrakutzen dituen kondairaz. Erdi Aroko Erreinu berrien eta feudalismoaren mendeak dira.

Erromako Inperiotikurrun, Europako herriak beren nortasun politikoa moldatzen hasiko diren garaia da, hain zuzen.

Monjeak eta monasterioak sekula baino protagonistago izango dira mende haietan, erlijiotasunean ez ezik kulturari, ekonomian eta politikan. Bestalde, esan behar da, Erromako Gotzainen -Aita Santuen- boterea zabaltzeko lanabes erabakigarria gertatu zen garaiko monakismoa.

Sortzetik Erreformatara (VI-XII. mendeak)

Ikusia dugu dagoeneko nola Erregela kontutan Euskal Herriko lehen monasterioak beren gisara zebiltzan, eta hala gertatu zen Europan ere, harik eta Karlomagno lehenengo eta Ludobiko Errukitsuak berehala (814-817. urteetan) San Benito Nursia-koaren Erregela (a.546) Inperio karolingiar osora hedatzea erabaki zuten arte. Erreforma horren gidaria Benito Anianokoa izan zen (†821).

Orduan ezarritako zentralismoak eta bizi-laztasun gogorrek, ordea, ez zuten izan bizialdi luze-rik. Hala ere, aniantarraren erreforma hark San Benitoren Erregelaren balio instituzionala agerian eta segurtaturik utzi zuen Europan. Mende bete geroago, beneditar klunitarrekin (909...), Erregela beneditarrak jatorrizko barne-oreka

berreskuratu zuen, "otoitza, lana eta ikasketa", hirurak, elkarren artean ongi orekatzean.

Tradizio beneditar izanberritu hori Cluny-ren erreformaren bidez finkatu baizik ez zen egin-go X. mendean, oraingoan ez Enperadorearen esanetara, Aita Santuen agindu eta iradokizunei erantzunez baizik. Cluny-ren politikak, beraz, funtsean Europako monakismoaren erromatartzea dakar berarekin, eta monasterio haren eta beraren etxe-sarearen nagusitasuna, monjeen munduan ez ezik Eliza osoan ere (XI. mendean).

Lehendik zerbait adierazi dut nola Cluny-ren arrakastak berak (hain handia, hain ederra berori!) ekarri zuen "errebolta", Ebanjelioko xumetasunetik gertuago egongo zen monjeen bizimodu berria berreskuratu nahirik. Horretara zuzendu ziren, hain zuzen, zisterarren XII. mendeko ahaleginak, eta hori izan zen San Bernat-en azken helburua (1091-1153).

Mendetako testuinguru horretan gertatu zen Europako, Penintsula Iberiar eta Euskal Herriko monasterioen beneditartzea.

Euskal herriko beneditarrak

San Benitoren Erregelak eta monasterioetako bi erreforma horiek beren bidea egin zuten Euskal Herrian ere.



Egin kontu, gainera, garai haietan (IX-XII. mendeak) Euskal Herrian ez dugula Eskeko Ordenarik (frantziskotar, karmeldar, etab.), eta monasterioek pisu nabaria zutela Nafarroako Erreinuaren (Hegoalde osoan, alegia), hemengo Diozesietan (Iruñea, Kalahorra) eta gure kulturaren. Hortaz, beneditarren bizierak eta politikak pisu handiko zeresana zutela garaiko herritarren artean.

Orduko Euskal Herriko beneditarren monasterioak batez ere Nafarroako Koroaren itzalpean loratu zitzaizkigun. Erreinuako politika erlijiosoak bezala Iruñeko Diozesiarenak ere zerikusi hurbila izan zuten monasterioen goraldi hartan: Leire, Iratzu, Iratxe, Tulebras edo Fitero Nafarroan bertan, baina baita orduko Errioxa nafarrean ere: Donemiliaga, Albelda, Najera, etab.

Egia esan, monasterio-sarea ez zen monasterio handi horiekin bakarrik osatzen, baizik eta handi bakoitzaren mende beste hainbat "monasterio" txiki egon ohi zen, monasteriolo edo deitu izan zirenak. Mota batekoek eta bestekeok sare hertsia osatu zuten.

E. Ozaeta-k laburtu zigun Erdi Aroko beneditarren historia, Arantzazun ospatutako Kongresuan (2002). Monakismoa gurean noraino errotu zen barruntatzeko nahikoa da historian eraikitako monasterio-kopurua ezagutzea: 398-1109. urteetan 1.828 monasterio zenbatu zituen Linage historialariak Penintsulan, eta "monasterio" bezala izendatutako 81 zenbatu ditut neuk Euskal Hegoaldean. Ia denak beneditarrek, gaurko Nafarroan lekutuak eta garrantzizkoenak XI-XII. mendeetakoak.

Nafarroako Erregeen asmoen arrastoan eta Santiago-Bidetik ez ziren erromes eta merkatariake bakarrik etorri: Okzitania eta Frantziako

monasterio handietako beneditar berriak ere heldu ziren Nafarroako Erreinuara, Antso III.a Nagusiak (†1035) eta ondoko Erregeek deituta. Euskal Herria berriz ere europartzen ari zen, horrela.

Beneditarren Euskal Herriko historiarik handiena mende haietako izan baldin bazen ere (eta berori bakarrik aipatzen da sarrienik), bada kigu beneditarrek beste gabe, edo zistertar bezala, gure egunak arte izan ditugula: horrela, gogora Beloke, Lazkao, Estibalitz eta Leireko monje beneditarrek, nahiz Oñatiko San Lorentzo monasterioko mojak, edo era berean zistertarrak: mojak Lazkao eta Tulebras-en, monjeak Oliva eta Ziortzan.

Mendeetako segida horrek historia aldatetsua izan du: Lazkaoko beneditarrek garai bateko karmeldarren komentuan jarri ziren bizitzen (Iparraldetik ihesi etorrita: 1905), eta Bizkaiko Ziortza Kolegiatakoak, berriz, eliza-etxeak zaharberritu ondoren Oliva-tik etorriak dira; Leireko monjeek XIX. mendean utzi egin behar izan zuten monasterioa, eta Nafarroako Aldundiari esker itzuli ziren osterera ere bertara, oraingoan Silos-etik etorrita (1945).

Historiak horrelako bidezidor bihurriak izan ohi ditu.

Joseba Intxausti

Gehiago jakiteko

MASOLIVER, A. (1994): *Historia del monacato cristiano. II. De San Gregorio Magno al siglo XVIII*. Madrid: Encuentro Ediciones..

OZAETA, E. (2004): "La familia benedictina en Euskal Herria", in: *Euskal Herriko Erlijiosoen historia*. Arantzazu. 129-153.